BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3724

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 13koa, Kabinete, Plangintza eta Estrategiako sailburuordearena, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduan ezarritako laguntzak 2011ko ekitaldian jaso dituzten entitate onuradunen zerrenda argitaratzeko dena; aipatutako agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean betebehar da publizitatearen printzipioa. Hori dela eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, ebazpen honen bidez onuradunen zerrenda argitaratuko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduan ezarritako laguntzei dagokienez, 2011ko ekitaldian onuradun izan direnen zerrenda argitaratzea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 13a.

Kabinete, Plangintza eta Estrategiako sailburuordea,
PEDRO GÓMEZ DAMBORENEA.

ERANSKINA

Erakunde onuraduna	Zenbatekoa (euroak)
AFV- Asociación de Fundidores del País Vasco y Navarra.	120.000,00
Alimentación- Cluster de Alimentación de Euskadi.	28.849,75
BBC- Asociación Basque Biocience Cluster	33.707,72
Enbor- Asociación de Fabricantes de Muebles, Complementos y Auxiliares del País Vasco.	120.000,00
Eraikune- Cluster de la Construcción de Euskadi	120.000,00
Herramex- Asociación Española de Fabricantes de Herramientas de Mano.	114.052,04€
Siderex- Asociación Española de Exportadores de Productos e Instalaciones Siderúrgicas.	120.000,00
SIFE- Sociedad Industrias Forja por Estampación.	79.610,43
MLC ITS- Cluster de Movilidad y Logística de Euskadi.	40.363,92
Guztira	776.583,86